

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

Vocal Delegado de la Sección de Lengua Vasca
PEDRO DIEZ DE ULZURRUN

Seigarren urtea — Pamplona. Mayo - 1971 — Maiatza. Iruña — 63gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

GOÑI, TEODOSIOREN ERRIA

Pazko astearen bukaeran, Jabier Aranburu albistari ta bere semeakin gelditu giñan Teodosioren erria ikusteko-tan.

Irurtzun barrena, Arakil ibaiaren ondotik joanta, Goñira Azanza igarota igo giñen. Aizpungo erri zarran gelditu bear argazki batzuek artzeko, ain nortasun aundia dauka erri onek. Kilometro batzuetara, Goñi dago. Eliza berria galanta dauka erriko beko aldiari eta gainean Eliza zarra; erdian erriko etxeak. Eliza batetik bestera ez daude eun metro. Ango kale berri ta ederrak ikusita aritzekoa da. Nunai iturri berriak eginak dituzte; etxeak ere galantak, geienak armariakin oso apainak daukate. Gure lenengo asmoa Teodosioren jauregia ikustekoa izan zan. Jauregia zan lekuan, oroitari bat bakarrik gelditzen da. Erria zelai baten ertzean dago, alderdi batetik basoz apainduta dauden mendiz inguratuta.

Eliza berriak etzigan ezer esaten bainan bai zarrak. Iriki ete zegoen galdetu genion an zan gizon zar bateri. Baietz esan zigun, Arrazoia au zan: «Ango ola zarrak ateratzen ari ziralako». Eliza zarra ori interesgarria da. Elizbular edo

absidea Nafarroan dauden ederrenetakoa degu, erromaniko garaikoa da, aundia gainera. Elizako zolan zeuden olak ateratzen asiak ziran. Barrenean dauden gauza guztien balioa edo salneurria jakin nai zuten. Bazter batean zegoen Errezanimientoko aldare baten balioa jakite arren angu egur landu bat Donostira bidalia zeukaten. Arriturik gelditu giñan an zeuden gauzen aberastasuna ikusita. Guazen gauzak agertzera. Aldare nagusiko gainean Kiriako sainduaren iduria dago; eserita arkitzen degu, erromanikoa degu, elizaren garaikoa. Gurutze bat ba dute garai berdiñekoa sakristin; ez diote kasu aundirik egiten, baztertua daukate, ura ere erromanikoa da. Kiteria deunaren iduri gotikoa ere antxe dago. Bataio Ponte ere erromanikoa da, oso ederra gainera. Elizaren ateak ere erromanikoak ditugu, izan diteken ederrenetakoa. Eskubiko aldean Errenazimientoko aldare bat ere ba dago. Burne sare bat gotikoa ere bazter batean daukate nunai-ko txatarrero batek eramateko prest. Argi olak etnografi aldetik ain interesantiak diranak ere antxen daude baztertutak. Eliz atarian, zimitorio zarraren ilarri borobillak ederrenetakoa lardakaten zebiltzen; andik konturatu

gabe eramango dituzte ludiaren bost muturretara.

Ezin dezakegu ukatu, au dana ikusita penaturik gelditu giñala. Eliza zarra ondo-rean, berria ikusita negarra egiteko gogoia ematen zuan. Eliza berriari santu merke aulabatuek jarriak daukate ta izan ditezen ederrenak Eliza zarran baztertutak. Gainera Eliza berria ezetasunez jota dago. Zarra etzuten nai, berria egin bear eta ura ere berealaxe ondatua. Orain ezetasun oiek garbitzeko, iduri zarrak bear al dituzte saldu? Buru gabeko erri batek agintzen al du orrelako gauza ederrekin? Erri batek egin al dezake nai duna asaba zarrak utzitako gauza baliogarririk? **Nun dago Diputazioa? Nun daude Elizaren agintariak?**

Teodosioren erri onek ba dauka urbanismo ta arte aldetik egokitasun bat ezin dana ondatzen utzi. GOÑIKO erriakin ba dauka Nafarro osoak zer ikusi aundia baita ere Euskalerriak.

Esaten ziguten erri ortan Eliza barrenean dauzkaten gauza guztiak saltzen zituztenean Eliza bera erortzen utziko zutela. Eliza ondoan dago Erretore etxe zarra, ederra arri landuakin egin. Azer toki ederra izango litzakena,



Goñiko Erria

ikastoletako aurren oporaldiak antolatzeke. Eliza zarra onek ematen dio ba ikaragarriko nortasuna bat GOÑIKO erriari. Nola leike ori dana lurrera erortzen uztea. **Esnatu bear luke Naparro osoak orrelako gauza nazkagarrien aurka. Orrelaxe ajola gabe**

askok galdu zuten euskera gure izkuntza zarra ain arrigarria dana ludiko gizon jakintsu guztientzat. Atzo euskera, gaur arte lana ederrenetakoa, biar sinismena izanen da. Noraño iritxiko gera gure gauzak ondatzen? Zergatik uzten zaie orrelako gaiztakeriak egiten ondatzallei? Nere lerro auekin nere nagabea agertzen det. Ezin ditugu orrenbesteko balioko gauzak ain errex ondatu.



Goñiko Eliza zarra

(«Aida» argazkia)

Ugain-Borda

Bilingüismo en País de Gales

Generalmente estamos inclinados a considerar el problema del bilingüismo bajo el prisma de nuestro país vascoño, o a lo más del catalán. Respecto al último, queremos incluir en esa denominación que es restrictiva para algunos (así en singular) también a Baleares y Valencia que tienen la misma lengua y similar problema, a pesar de las variedades dialecticas.

Ahora que parece que se tiende a favorecer la enseñanza de la lengua minoritaria, oficialmente, en especial por nuestra ilustre Diputación Foral, son de interés noticias sobre tema tan controvertido.

En esta parte de Europa se ha solucionado el problema del bilingüismo en Suiza, Yugoslavia, Bélgica, País de Gales (Gran Bretaña), Holanda, y en parte de los países germánicos y escandinavos.

Vamos a referirnos sucintamente al estado de la enseñanza en Gales, cuya lengua es totalmente distinta del inglés, y hablada por medio millón de personas, de un total de dos millones y medio. La población que conserva su idioma está diseminada en pequeñas ciudades, aldeas y caseríos, mientras que en las zonas meridionales muy industrializadas, se habla el inglés; aunque también hay escuelas oficiales para la enseñanza del galés.

Los datos que siguen, son los proporcionados por el profesor de Educación de la Universidad galesa de Aberystwith, J. L. Williams.

El idioma nativo ha ido perdiéndose, en el siglo pasado sobre todo, de forma parecida a como ha ocurrido en nuestro país; pero de 1901 a 1961, aún se ha reducido a la mitad el número de galés parlantes; aunque gracias a la protección de las leyes, haya aumentado el número de los angloparlantes que han aprendido el galés.

Según los estudios del citado profesor, un niño tiene parecida dificultad en dominar un idioma que en hablar dos; y no está demostrado que la instrucción primaria en galés haya sido una remora para el aprendizaje del inglés. Por el contrario, está demostrado que muchos niños que

asisten a una escuela bilingüe progresan más que otros que acuden a una monolingüe; sin que se pueda generalizar.

Puesto que depende del método empleado en la enseñanza del idioma, de la vocación y atracción personal del maestro, así como de la capacidad del niño. Se olvida muchas veces que el éxito de la enseñanza no depende tanto de la sabiduría del profesor como de su acierto y simpatía, que se traduce por la acogida que le hacen los alumnos.

Hace cuatro siglos que el pedagogo checo Comenius (Komensky) predicó éstas y otras cosas de sentido común, para muchos inútilmente.

Hace 100 años en Gales, la situación bilingüe era considerada de transición, ya que la lengua nativa debía ser absorbida por la de cultura en dos generaciones; este sentimiento era compartido por los mismos galés-parlantes, a pesar de tener un idioma de muchos siglos de rica tradición literaria.

Es fenómeno reciente el deseo, llevado a la práctica, de los padres de la clase media, de que sus niños aprendan el galés.

Aquella actitud respecto a las lenguas minoritarias era general en Europa durante el siglo XIX, pero en el actual casi todos los Estados han cambiado hacia una disposición de protección y ayuda, como hemos indicado arriba.

En el año 1874 se dictaron ordenes en Gales, condenando el uso del galés en las Escuelas y afirmando que su uso era una remora para el pueblo galés.

Cien años más tarde, en 1948, el Gobierno (laborista) publicó los grandes avances realizados desde entonces.

Hace un siglo, decía, tres delegados gubernativos denunciaban la nefasta influencia del idioma galés sobre el progreso económico y moral de dicho pueblo. Hoy esta postura es insostenible, sigue el ministro, y creo que el lenguaje, la historia y las tradiciones de Gales son herencia inapreciable de todos los niños galeses.

También el eminente escritor T. S. Eliot manifestaba que dejando morir el galés se causaba

una pérdida no sólo para la cultura de Gales, sino para la de Inglaterra; opinaba que era extremadamente difícil mantener las características nacionales de Gales, permitiendo la desaparición de su lengua. Era la voz de un espíritu progresivo del siglo XX; muy diferente de la del escritor del siglo XIX Mathew Arnold que escribía: "No son verdaderos amigos del pueblo galés los que, por romanticismo, obstaculizan un progreso tan deseado social y políticamente. Turistas y comerciantes rinden un excelente servicio, al empujar hasta el mismo centro de Gales, la frontera lingüística del inglés, apoyados por la presión de los ministros de Educación en las Escuelas elementales".

Esos son tiempos pasados, en que el galés era despreciado y abandonado por muchos de sus poseedores. Se ve que parecidas circunstancias se han dado en nuestro país, que ahora parece se van modificando.

J. L. Williams dice estar convencido de que no se puede salvar un lenguaje cantando himnos y viejas canciones solamente; sino planteando la base de un raciocinio práctico y de una sana planificación. No acepta un Gales de lengua única galesa, que algunos aún defienden; aunque la gran mayoría defiende su lengua vernácula (aún los que no la hablan) junto a la más culta de ámbito internacional con fines utilitarios.


Esto ocurre no sólo en Gales, sino en los países escandinavos y otros, que son casi totalmente bilingües, por espíritu pragmático y universalista.

La idea un tanto pedestre, de un lenguaje para todo el mundo, está hoy abandonada y sustituida por el bilingüismo.

Incluso en zonas donde ya no se habla galés, hay tendencia a poner nombres galeses a sus casas, a sus hijos, a las calles de sus ciudades; esta circunstancia también se repite en otras partes, como el lector conoce muy bien.

A. Apat Echebarne

(“Diario de Navarra” egunero-koitik hartua).



ELIZAREN
ITZA.

Eliza gaurko munduan

Izkillu ta armak ugaritzeakin, nahiz bi aldetatik berdintsu izan, urbildu beharrean uxatu egiten da pakea.

Guda ernearazten duen giroa, sua izakiarazten duen txingia, gogorkeria da, besteren eskubide zuzenak zapaltzea, besteren bizkarretik par egitea ta azkenean hortaraxe garamazki gudaran aitzakian, izkillu garestienak geroago ta gehiago pilleratzeak, munduko irutatik bat gose gorriak, gaitzkoa eta ezjakiñak desegiten ditun bitartean eta hauek artzoko dute orren erraz aitzen dan diruketa hortan, Jainkoak gizadi osoaren onerako sortutako gauzak, ez dezazke inork beretzako bakarrik gorde.

Gaurko eguneko jendeak oker hoketaz konturazten dijoaz eta maitasunaren ordez, gorroto kolkoratzen dute.

Gaitzbide lotsagarriok behingoa purrukatu behar dira eta egiazko pakea eraikitze bide berriak antolatu, bildurra ta es-tutasuna aizatu, patxara ta lasaitasuna ereiteko.

Horra bada, berriz ere esan; armen ugaritze bide hori gizadia izurratzen dun gaitzik makurrena da, ta jende behar-tsentzat kaltegarriena, hola jarraitzeak ondorioz lotsagarriena sortuko ditu.

Bakoitzak bere errua aitortuz, batez ere Estatu indartsuenak indarkeria alde batera utzi ta, gizonki, arrazoa jarri zagan nagusi, gudaren zurrunbilloak denok irentsi baño lehen.

Denok elkar ar dezagun munduko erri guzik, denok batera guda gaitzetsi dezaten. Honek eskatzen du mundu osoan, Estatu guzien gañetik, agintari zorrotzak, denen artean aukeratu ta eskubide osoz jantziak zuzen dena betetzeko eta makurrak zigortzeko jarri behar direla.

Baño agintaritzza hau ez daukagun artean Nazio arteko batzarrak indartu zagan elkar ongi artuz, hortarako biderik obere-nak zabaltzen saia ditezten.

Lehenbiziko lana orain bezala, eragotzi izkillu berrien furrunda; lehengoak, alderdi guztiek batera uzten joan, denak garbi jokatuta.

EUSKAL HERRIKO LEIOA

EUSKAL MEZA BAT BURLADAKO HERRIAN

Lehenengo numeruan esan genduen bezelaxe Burladako Herrian euskeraz esandako Meza bat asi da ematen.

Meza hau San Martingo Elizan igande ta besta egun guztietako goizeko bederatzi terdian esaten da.

Ioan berri den Maiatzaren bigarren egunean lehenbiziko Meza izan zen, jendea multzoka bildurik.

San Martingo Eliza Burladako herriko San Blas karrikan dago.

Burladako euskal Meza bertan bizi diren euskalduneeen eskariari kaso eginez ematen da.

«LUR» EDITORIALAREN LIBURU BERRIAK

«LUR» Editorialak bi liburu argitaratu eman berri ditu: «Lau gartzelak» eta «Linguistika orain arte» deitzen direnak.

Lehenengo liburuan Nazim Hikmet poetaren bertsoak azaltzen dira Gabriel Aresti jaunak euskeraturik. Aresti jaunak Turkiako poeta famatuaren poemak euskeraz ezagunerazi dizkigu. Liburu honen itzaurrea Arantxa Urretabizkaia idatzi du.

Bigarren liburuan, «Linguistika orain arte» izenekoa. Xabier Kintanek egindakoa da.

BAIONAKO FERIAK ETA EUSKERA

Aurten Baionako Ferietan egun bat oso euskerarentzako emana izango da. Baionako Feriak Uztailaren lehenengo egunetan egiten dira. Euskeraren egun hau bada datorren Uztailaren irugarrenean egingo da.

Irakurri dezagun orain Bizkaiko «ANAITASUNA» euskal aldizkarian Gexan Lantxiri jaunak berri ikingarri honi buruz izkribitu duena: «Egun bat oso oso euskerari emana izanen da, beraz, aurten

Baionako Ferietan. Egun guztia egin izanen da euskal liburu eta diskoen feria. Egun guztian Feriaren ikusliar guztiek entzuten dituzte euskal soinu aiosak; Arratsalde erdian berriz, euskera dakiten eta ez dakiten aintzek, Kantaldi baten entzuteko parada izanen dute». Eta hemen Iruñean Sanferminetan zer? Dena zezen, zarata, abarrots eta ardua? Txistu soinuren bat entzuten badugu ere hori zer da? Hori ezda ezer. Gure Iruña zaharrean.

Beste ainbesteko «Euskeraren eguna» baten premian gaude.

«IRAKUR SAIL» EUSKAL EDITORIALAREN LIBURU BERRIA

«Irakur Sail» delakoa euskeraz idatzitako liburuak argitaratzeko etxe bat da, hau da Euskal Editorial bat.

Egun hauetan Editorial honek liburu berria prestatu eta argitaratu berri du. «Atsotizak eta neurtizak» izena duena.

Liburu hau ez da oraingoa Ohienarte Zuberoko seme zenarena baizik. Baño oso ona da, ikingarria, eta berriz ere argitaratzea lan ona izan da.

LITERATURA SARIA EIBARREN

Aurten Eibar herriko San Juanetako festetan euskeraz eta erderaz «Literatura Sariak» izango dira. Bertako Aiantamentuak ogeitalau mila pezeta «Literatura Sari» hauentzako eman onhartu ditu, Martxoko irugarreneko biltzarrean.

JULIO URKIXO ZANAREN EHUNURTEBURUA

Aurten Julio Urkixo zana sortu zanetik ehun urte betetzen dira. Amar urte pasatuak dira il zanetik eta beti euskaltzaleen biotze-

tan dago bere oroimen eta gogorapena.

Julio Urkixo ta Ibarra Deustuko herrian jaio zan 1871 ko Apirilaren irugarrenean bigarren karlista gudaketa asi zan urtean.

Jaun ospetsu eta fama aundiko hau lehenengo Euskal Akademiaren Euskaltzaina (Akademikoa) izan zen gure Arturo de Kanpion zarenaren batean bai ta oraindik bizi den (eta urte aunitzetan bizitzeko Aita Inza!). Aita Damaso Intzakoarekin ere.

«Revista Internacional de Estudios Vascos» delako izen aundiko Aldizkaria Urkixo jauna zen mundu guzira zabaldu zuena. Berak sortu, berak zuzendu eta berak ere bere arima ta bizia eman zizkion.

Irurogei ta bederatzi urte zituelarik il zan. Donostiko Artzai Ona Katedralean ehortzia (Iurperatua) dago.

Durango herriak Julio Urkixo zarenaren ehunurteburua dela ta «Euskal Festak» antolatu ditu 1866 ko urtean Durangoko herri berearen egin ziran «Euskal Festak» ederrean oroitzapean.

Durango «Euskal Festak» delako hauetan era askotako lanak, erakusketak, itzaldia sariketak, ikastaldiak, folklore gaiak, liburu merkatuak, jolasak, dantzak, kanta ta Euskal Herriari dagokion guzia izango dira.

«DIARIO DE NAVARRA»REN EUSKAL ORRIA

Pasatu berri den Apirilaren 21 an bost urte bete ziran «Diario de Navarra» egunerokoaren Euskal Orria argitaratzen asi zanetik.

Bost urte hauetan ehun ta ogeitamar euskal orri azaldu dira.

Irakurle guziak ikingo duten bezala Iruñeko «Diario de Navarra» egunerokoak amabostean behin eta beti ostegunean euskeraz idatzitako orrialde oso bat argitaratzen du. «Diario de Navarra» ren euskeraren aldeko lan honek esatean merezi du. Ikusle



EUSKALTZAINDIAREN BATZARREA

1971 ko apirilaren 20an Euskaltzaindiak bere hileroko batzarrea egin zuen Bilbon, Euskaltzaindiaren beraren etxean.

Hona hemen batzarrean erabilitako gai nagusien laburpena:

I. Patrick Farrell jauna ingeles egiten hasi den Euskal gramatikaren berri eman zen.

II. Euskaltzaindiaren liburutegirako Bizkaiko Liturgi Batzordeak liburu mordo bidali duela esan zen (liturgi eta kristau dotriaren itzulpenak alegia).

III. Era berean, Pierre Laffitte euskaltzain jaunak liburu mordo eskaini du liburutegirako.

IV. Aita Ismael Torres-ek argitara berri duen «Umeen Deia» liburuaran ale bat jaso da liburutegirako.

V. Berebat Aita P. Altunak Euskal aditz batuari buruz atara berri duen liburuaran ale bat eskaini du.

VI. Ondoren Iruñean, apirilaren 4 eta 5-ean, Herri Hizkuntzen Symposium-a prestatzeko egin diren jardunen berri eman zituen Karlos Santamaria jaunak. Jardun hoietan parte hartu zuten Euskaltzaindiak, Institut d'estudis Catalans eta Real Academia Gallega-k, Nafarroako Diputazioaren eta Principe de Viana Elkartearen itzalpean.

VII. Karlos Santamaria berberak euskal esaren hiztegi bat egiteko eran batzuk eman zituen. Donostiako ordezkariak asmo hau aurrera eraman nahi luke.

VIII. Idazkari nagusi den Juan San Martin jaunak Etxegintza Itzégirako Batzordearen lanak zertan diren adierazi zuen. Hiztegi hau Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro-ren Gipuzkoako sailak eskatua da.

IX. Aita Villasante lehendakari jaunak proposamendu bat egin zuen Batzordeak eta Batzarrea hiler bil ditezten eta onartua izan zen.

X. Aresti, Berriatua eta Kintana jaunek aditzaren Batasunaz egin dituzten lanak aurkestu eta azaldu zituzten. Hartarako jarririk den Batzordeak lan hoiak aztertuko ditu.

XI. Luis Mitxelena euskaltzain jaunak jakinarazten du Congreso Internacional de Hispanistas aurki egitekoa dela Salamancako Unibersidadean, eta Euskaltzaindiak lanen bat egiteko gomiatzurik dela.

XII. Azkenik, Euskaltzaindiak entzun du Real Academia Española-k «euskeraz» hitza bere hiztegian hartu duela berria, eta batzar agirian hori adieraztea erabaki zen.

(Euskaltzaindiko Prensa Bulegoaren Agiria).

LIBURU BERRIAK

Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco



ENCICLOPEDIA
GENERAL ILUSTRADA
DEL PAIS VASCO

Hartu berri dut «Añamendi Argitaldaria» ari duen lan zoragarri baten bostgarren zenbakia. «Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco», bildumaz mintzo naiz. Bat bestearen atzetik, berantzerik gabe, aho zabalik uzten gaituzten harri bitxiak heldu zazkigu eskutara: zinezko perla-harriak. Halako gauza bat gure artean egin zaiken ezin sinetsiz bezala nabil oraindik; ez gure jakintzak gai eskasirik duelako, erostun gutxi ginelako baizik. Baina, ezin uka begiek ikusten dutena: bostgarren mugarrin da alor haundi baten lantze aberatsa.

Elerti, Literatura sailako bigarre-na da oraikoa. Idazle bakoitzaren heriotzak mugatzen duela, 1897-tik 1936 bitartekoak dakartzki. Ez gizen berri bakarrik: denbora hortako joera berri, leiaketa, eta talde berxien lana ere arkitu da. Beharretan ginen euskal idazkien agerkaria.

Zenbaki honek, Yon Bilbao-ko egindako lana dakarkit gogora. Hain zuzen, euskal gaitetz idatzi izan den guziaren erakusketa zabal eta agorgarria, ez da Literatura sailako berri eman nahiaren azken muga baizik. Bide ez-berdinetatik, batera

datoz biak; eta bilduma berdin-gabea osotzen dute, ez Argitaldaria berak ematen dizkigulako; hari berdineko piruak direlako baizik. Biak dute elkar laguntzen.

Azken zenbakiak ba du beste zerbait ere: Undiano-ko Juan abadearen liburu errezkadan XVI, mendeka euskal kantuen liburu bat agertzen dela jakinarazten digu. Egile ote? Euskal bertutan ari zela dio beste nunbait, eta bertuen egile bera izatea gerta laike. Iparragirre haundiaren «Jaungoikoa ta Arbola» izeneko bertsuak ere eskuratu dizkigute; hasieran ematen dira. «Astabizkarreko» kantuen xehetasunak ezagunagoak ditugu. Altabizkar izena ez zaigu hain egokia iduritzen.

Urte hauetan lan haundia egin da bertsu, paper zahar eta euskal eserak biltzen. Herritan ere agertu dira ezagutzen ez ge-


nituenak. Han hemenka argitaratu diren hobereak bildu ta ondolik etorriko diren zenbakitan sartu laizke. Egungotasun haundia ematen diote. Idazle bakoitzari jakin-garrienen berri eskatzea nahiko izango litzake. Garrantzi hontako bildumak ongi merezi luke.

Beste alde J.M. Hiribarrenen «Eskaldunak», uste gabeko eskeintza dugu, azken orritan. Alferrik mintzatzea izango litzake lan baliotsu honen laudoriotan urteaz. Bere buruz da laudatzen Estornes Lasa-tarren eginkizun nagusia. Nerre ustez, gure liburutegitan sartu den ametsik ederrena. Ezin sinetsia bezala.

J. M. S.

(Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Edit. Añamendi. Secundino Esnaola, 13, Pral-Ap., 2. San Sebastián).

Rikardo Arregi (1)



«Jakín» delako aldizkariaren jorkabidea ondo baino obetogo ikusten dugula aitortu nahi dut bertatik. Oraintsu «Salvatore Mitxelena» deritzaion saiakera bikain bat eman ziguten.

Oraingoan «Rikardo Arregi»-ren inguruen datorkigu liburuxka eder-askoa.

Onuzkero ezin asiko gera Arregi zanaren euskal zaletasuna eta gure herriaren alde egin zun lana aldarrikatzen. Ondo ezaguna baita gure artean.

Torrealdy idazle argiak Rikardo zana «urbildik» ezagutzeko zoria izandu zuala», aitortzen digu eta ondolik berak: «errotik euskalduna zen gure Rikardo, eta errotik gaurkoa... Problemaren kontzientzia biziarekin, asmo horri heldu zion, alegia, euskaltzetasun ta gaurkotasun ezkontzeari». Ta lan ederrik egin zuala aitortu behar. «Langillea baizen, langille izugarria, ezin sinistekoa. Herriaren alde ekiteko beti prest» zegoana gañera (Torrealdy).

Rikardo zanak amets aundi ta eder asko zerabilkin Euskal-Herria jaso nahiean: «Euskal idazleen elkartea, Euskal liburugintza eta abar...».

Baina nik esango nuke bere lan ederrera eta onuragarriena euskal-alfabetatzen lana izandu zela. Izan ere, euskaldunak, asko ta asko behintzat, «analfabeto» gorriak dira euskal alorretan. Ez dakite ez idazten ta ez irakurtzen. Gaur egun, Ikastolak eta beste, zerbait egiten da, baina ezer gutxi oraindik. Ta Arregi prestuak gure gaitz horri sendabide zerbait billatu naihean edo, «Alfabetatze Batzorde» bat sortu zuan. Lantegi ta lanbide hortan eman zituan bere urterik ederrenak.

Bera izan zen alfabetatzearen eragile gartsu, buru-bihotzak erabat eta osorik lan hori eskani zizkiona. «Bere euskerari buruzko entseguak ta, batez ere, bere hitzaldiak, jakingarriak dira guretzat. Ta hori dena liburuxka polit batean eman digute «Jakín»-darrak: RIKARDO ARREGI delako liburuxka zoragarrian.

Liburuak iru parte berexi ditu: —Lehen partea: Rikardori buruz entseguak.

—Bigarren partea: Rikardoren entseguak.

—Hirugarren partea: Rikardoren hitzaldiak. Lastimarik bere urterik ederretan, 29 uste eder zitularik, joan zitzaigun gure artetik. Baina berak erein azia emen gelditu da eta frutua ekarriko al du bere garaian, Euskeraren eta Euskal-Herriaren onerako.

Aztiri

(1) RIKARDO ARREGI, Jakín-sortak argitaratu duen liburu berria. Salneurria: 100 peza. Suskriptoreak: 70 peza. Zuzenbidea: JAKÍN. Arantzazu. (Oñate).

Nafarra dan zaindari Franzisko Santuari, begira gaude danok. Omen aundi au zuri. (1)

Alde batetik nafarra izanik, bertsolaria bertzetik, denen artian eskasuen ez dutelako etorririk,

Ez nuke izango (merezi ere) egiz zure barkaziorik gure Euskara bakar onetan zugaz mintzatuko ez banintz.

Orregatikan une onetan eskatze izut biotzetik niri emateko zure eskua zauden zeru goi artatik.

Orretarako lagunduko nau lana aunitz erraztuaz, otoi-tza liburu Breviariuak Euskara itzkuntzan jarriaz.

Zure bizitzaren gora berak nai ditut batzuek berritu, ta len egiñak egongo diran ateri geigo kantatu.

Jaiua izan zan gure Franzisko Javier, Iruña aldetikan. Zitun guraso aundizkietakok, izen ta izan goikuetan.

Paris'a junik Ignazio-rekiñ lagun ta ikasle jarri zan. Bere Maisutaz auxe zularik, aundiak ikusi ziran.

Goi goiko gauzez oldosten zeola noiz nai ikusia izandu zan, lurretik gora altxatzen zela Jaunarena jun naian.

Bertze ainbertze gertatuzten zan meza ematen zunian, erri guztiak ikusten zula goruntz jasua aidian.

Arimak zeuzkan poz aldi abek zanpatzen zitun nekietan.

Bere soñari ematen ziozkan zigor ta estatusunetan.

Ez aragia ez arduarik, ez eta gari ogiarik. Mantendutzen zan janari aulaz, jan gabe egunak utzirik.

Jantziak berriz iñun zarrenak agertuzten zirenakiñ. Ala gorputza azpiratzen zun mende-mendian eukirik,

zauri odolduan jarri arteraño gorrotagarri antzera. Luari berriz denbor laburra, lurrian etzanik gañera.

Zer nai laneako zaillua zala ongi ikusi zanian; Apostoluen bidetarako gauz zala agertu zanian,

Portugaleko Juan Errege irugarrena zan arek eska zizkion irugarrena zan Paulo Aita Santuari, arren.

Indi aldetara bialdutzeko eman zeizkiola lagunak sortu berria zan senditikan egoki aukeratuak.

Ignazioren iritzi auxe ongi aukeratu zuten. Baimen guztiak artu ondoren «Agur, zuaz», esan zioten.

Lur aietara sartu zan zoriz beriala asi zan izketan, ta gauz bat oso miragarria antxen gertatua bazan.

Bertzerik gabe izkuntz danetan (oso zallak ziralikan) agitz ikasia Jaunaren laguntzaz, denetan mintzatuzten zan.

Joaquín Aldave

Euskaltzaindiak eratuta

LITERATURA SARIKETA

GAIA: SAIKERA

Bizkaiko Aurrezki Kutxak babesturik, bere Berrogeitamar urteburua dela-ta, Euskaltzaindiak 25.000 pezetako literatura saiakera bat jartzen du.

Sariketaren oinharriak:

1) Euskeraz, Euskaltzaindiak Arantzazuko bileran (1968), gomendatuko idazkera arauetan.

2) Gaia Literaturari buruzko saiakera. Gai honen barnean, berdin da literaturari buruz era orokarrean edo literatura mota berezi baten barnean.

3) Egileak bere kabuz egin izan behar du eta ez da ontzat hartzen itzulpenik.

4) Lanak, orrialde batetik makinaz idatziak, lerro-une bat zuri utzirik, folio edo DIN A-4 (210 x 297 mm.), paper neurrian gutxi gora behera, gutxienez 50 orrialde.

5) Bizkai Aurrezki Kutxak jarritako sari bakarra 25.000 pezetakoa izanik, epai-mahainak hala uste badu, erdibana dezake, baina ezingo da utsean utzi.

6) Mahai-burua Euskaltzaindiak izendatuko du.

7) Lanak Euskaltzaindiaren etxera bidali behar dira (Academia de la Lengua Vasca. Ribera, 6. Bilbao-5), 1971-ko Uztailaren 26-a baino lehen. Lema batekin izenpetu, eta lemaren giltza estalduta, lanarekin batera bidali.

8) Saria Urriaren 31-n, Aurrezki Kutxen egunean emango da. Bizkai Aurrezki Kutxaren etxean egingo dan jaialdian.

Julio Urkixoren

«Eunurteburuko» Txapelketa

«Eunurteburuko» Txapelketa au, don Julioren giza-maila lan eta gaurkotasunari buruz sortu ditezten lan berriak saritzeko sortzen da.

OINARRIAK

1.^a Ager ditezke edozein lurralde ta izkuntzako gizonak. Lanak euskeraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, naiz alemanez idaz ditzakete.

2.^a Lan bakoitzeko iru ale bialduko dira, bi tartetan idatziak eta alde batetik bakarrik beteak. Lanaren luzera, nolanaikoa izan ditekete.

3.^a Lan bakoitza, idazlearen izen-ordez eta ikurriz batekin bialdu bear da Beste estalki itxi batean jarriko dira idazlearen izen deiturak eta zuzenbidea, ikurriz edo lema berarekin.

4.^a Lanak artzeko epeak, aurtengo Abuztuaren 31 rarte iraungo du.

5.^a Lanak zuzenbide ontara bialdu bear dira: Comisión organizadora de las Fiestas Euskaras — Calle Santa María, 4-1.º — Durango (Vizcaya).

6.^a Saria berrogei mila pezetakoa izando da (40.000 pta.). Lana argitatzeko da «URREZKO» Erremota eskeintzea, Batzordearen egitekoa izango da. Batzordeak izendatuko dituan maaikoak erabakia ematerakoan jakin-araziko dira. Maaiko auek, Batzordeko jaun bat, idazkaritzat artuko dute. Oñek itzezin dezke, baina botorik ez du eman aal izango.

7.^a Eskutitzez elkarrekin sari ontaz aritzea debekatua dago.

8.^a Julio Urkixoren eunurteburuko sari ontara agertzen danok, oinarririk auek onartu bearko ditu. Sor ditezken eztabaidak, Batzordeak ebakiko ditu, iñork aren erabakia austeko biderik ez dualarik.

Durango, 1971 garren urteko Apirillaren 3an.

IKASI, MIKASI...

JAINKOAN-IZENETAKOAK

Bordari eta baserritarrek erri aundietara bizitzera aldatzen direnean, estutasun batzuk izaten dituzte. Mendiko xagua ez da nolanaiz etsitzen etxeko xagu izateko...

¿Nola iges egin ainbeste saldun eta eskalengandik?

¿Edozeñekin elkartu, edozeñeri erosi, edozeñeri eman?

Orain egun batzuk, Erreterin (Gipuzkoan), izandu nuan elkar-izketa ontan ikusi dezakete leizaleak gizon oitako baten istilluak.

—Esan didate, beorrek "PRINCIPE DE VIANA"n, "Ikasi-mikasi" izena duten artikulo politak paatzen ditula.

—Politak edo zakarrak, nik bildutakoak dira beintzat.

—Nik ee, zerbat galdetu nai nioke, ta, nai bao, "Ikasi-mikasi"n jarri bezake, baño nee izena...

—Etzaidazu esan, eta ezin det jarriko.

—"Gure errira etorri den eskeo —esan dit nee emazteak—, galdetu bear ziñioke iya pekatu den eskalei ez ematea".

—¿Inoi ez ematea, edo batzuei ez ematea?

—Nee emazteak dio, gutxi eo asko, denai eman bear zaiela.

—Ori bera esaten zigun gure ama zenak. Baño, ¿zeinbat eskale etorriko ziran gure errira? ¿Astian, bat? ¿Illebetero, bi? Ez naiz ongi oroitzen. Bakar bakarrik gogoan daukat, noizpin bein, sukaldean giñela —kontu kontari, asmakizunetan, errosarioa errezatzen...—, gure txakur txiki "Txalon", naiz lo gozoan egon, aunka asten zenean, juaten giñen laisterka, atal-gañetik begitzera, eta esaten giñon amari:

—"¡Ama..., jainkoan-izenekoak!".

Gure amak, ari zena bela utzita, artzen zuan ogi pusketa bat, bizpauru pateta edo zortziko bat, eta limosnatxoari musu emanda, irriparez, ematen zion jainkoan-izenekoari (guk ez giñun ESKALE esaten).

—Gue amak ee, beste amiste iithen zun. Baño, emen bizi balitz, ez dakit zee ingo zun. ¿Emen ezdatheke...! Emen, biotz biñue dunak, ezin da bizi. Eun batez ee, ez diute uzten pakin bazkaltzen...

—Orain ezta len ainbeste jainkoan-izenekoik...

—¿Jainkoan-izenekoak, eo deabrun izenekoak..., gue etxea etortzen dee baa! ¡Bat, reista batekin, beste bat nobelakin, beste bat arropa garbitzeko autsekin; au Biafrakoentzat, beste au Pakistanenkoentzat; onek misiotaako biltzen dula, beste onek ospitalentzako; iya nai ote duun erleju bat, eaztunek, korbatak, mandherik, oatzin estalkik, "Cortetrage" bat, sedazko galtzak...! Ostaturu sartzen ba zea, bela jarriko dizute suurren aurrin "Loteria Nacional", kale iskiñen bakotxen, itsuat duzu "¡Veinte iguales para hoy!", kantari dela... ¡Nei ez dee ba iñok deus ematen! ¡Niree, paper mordoxkaat besapin artuta, etxez-etxe, asi bearko naiz...!

—Ez larritu, gizona, ez larritu. Mendiko xaguak ere, etsi ditekete etxeko xagu izateko. Nai ba dituzu nere konseju batzuk...!

—Oien esperoan nao.

—Ikusten duzenez, erri aundietan, diruan sakelak jario asko izan dezake. Ori, kontun iduki beti. Etxeko itxisurakin egiten den bezala, lendabizi kendu bear dira aundienak. Ba dira, sarritako tanta thihiengatik asarretzen direnak eta zurrust aundiai kaso egiten ez diotenak. Ejenplo bateko: norbaitek bizpauru aldiz, misto bat eskatzen ba dizu, esaten diozu: "¡Frailian seme zerala, dirudizu!". Egun berean, auzoko alper batek eskatzen dizkizu EUN PEZTA, ¿egun batzutarako bakarrik!, eta ematen dizkiozu. ¿Itzuliko dizkizu noizbait? Nik uste det, ezetz...

—Ekusteot, beorre ongi enteratuik dagoala.

—Ara, bada, nere konsejuak:

1. LAGUNEKIN, KONTU. Erri aundietan, lagun gutxi eta onak bear dira. Txarra denak, ba-dakizu zer dion: "nerea neretzat, eta zurea biondako". Lagun asko ba dira, naiz banaka onak izan, askotan kaltegarri izango zaizkizu. Igandetaz eta, txiki erdi batzuk edatera joaten ba zerate, eta bizpauruekin naiko bada, ¿zertako artu zazpi, zazpi lagun zeratelako?

2. AUZOKOAKIN, ERNE. Arkitzen dira, burugabez edo mutur fiñe dutelako, egiten dutenak: "Dagoanian, bon-bon; eztagoanian, egon", edo eskatu. Gero, zinerako eta, izango dute. Baño, ordaintzeko...? Oie, ez esan etzerala fiatzen edo beste itz gogorrik, baizik, konejuan arpegia jarrita, esaeizu: "¡Al-baneza, pozik emango nizuke, baño gaur biñepin, ezin dut...!".

3. LEPOTARREKIN (bestien lepotik bizi direnekin), KONTU. Auzokoai, ezagunai ematea peligrozkoa ba da, ez ezagunai eta betiko kontuekin dabilzenai "¡Au ta au, gertatu zait; nere errira itzuli nai nuke eta dirurik ez det...!" — ematea, putzu batera botatzea da.

4. ATARIETAKO SALTZALLEAKIN, KONTU GEIAGO. Erri txikitara, dendarik ez delako, etortzen dira autoakin salgai dabilzenak. Oietaz fiatu ditekete, jende ezaguna eta formala izaten data. ¿Dendan baño garestixeago dakartela? Baditekete. Baño, prezioan galtzen duzuna, denboan irabazten duzu. ¿Erri aundietan, atariz atari, erlejuak, sedazko galtzak eta saltzen? Ez fiatu. Inor ez dabil dirua erregalitzen. Naiz "barku batetik ateratakoa dela" esaten ba dizute, eskiñeko dendan lau aldiz merkeago eresia izango da...

5. LOTERIA ETA KINIELAZ, AU ESATEN DIZUT. Asko jokatzen zena. eroa da: ta beñere jokatzen ez duena, tontoa...

6. ELIZERAKO, MISIOTARAKO, GAIXOANTZAKO, DESGRAZION BAT IZAN DUTENENDAKO: eman al duzuna eta borondate duzuna.

7. ESKALEI, JAINKOAN-IZENETAKOAI (oraindik bat edo bat ikusten da): baldin seguro mozkorra dela edo lan egitego sasoin, ez eman. Jakiñen gañen ez ba zaude, batez ere zarrari eta itxurez oso beartsuak diruditenai, al dezunean zerbaiz biñepin emaeizu. Berak, Jainkoan izenean eskatzen dizu: Jainkoak, Berari emana bezala ordainduko dizu: "TXIKITXO AUETAKO BATI BASO BAT UR OTZ EMATEN DIONAK, EZ DU BERE SARIA GALDUKO". (Mateo, 10, 42).

¡¡ARAMAIO... ERDALDUN BIURTU...!!

ZELETA JAUNARI ESKUTITZ IRIKIA

SINIST-AAL DITEKE...? galderarekin, euskeraren etorkizunerako garrantzirik aundieneko dan artikulu bat idatzi dezu Z. Argian, Arabako erri Aramaio «ERDALDUN» biurtu dala esanaz.

¡¡Biurgune beltza... bat bada!!

Ona zuk diozuna: «...Sinisgaitz izatekoa bait da, izan ere, oraindik 40 urte ez dirala euskaldun zan erri bat, ain aldi gutxieren barruan, erdaldun biurtu dala irautsi bear izatea».

«...ARAMAIO!! Nik orain 40/50 urte ezagutu nuan uri EUSKALDUNA, ERDALDUN biurturik dago orain...!!».

—oOo—

Z. Argian irakurri dedanez, zure artikulu orrek oiartzun zonbeit izan ditu.

Batik-bat, Bizkai aldetik adixkide batek erantzun dizuna garrantzirik aundieneko da eta emen agertu nai degu. Ona zer dion:

«...Sinisgaitz dela diozu, adixkide...? Ez dut uste orren sinisgaitz danik, Aramaio bezelatsu, ondamentia beste erri ASKOTAN ikusten dugu-ta».

Bizkaiari nagoalirik AMAR erri GUTXIENEZ aipatuko nituzke, gutxi gorabeera Aramaio bezela berrogei urteren buruan euskal izkuntza galdu dutenak edo galtzeko irrikuan aundian daudenak.

«...la BIZKAI GUZIA erdaldun biurtu zaigu, auzo errikkak izan ezik».

—Eta bere iritzia sendotzeko ona, agerpen gisa, esaten diguna:

«...UBIDEA: Azkenengo gerratean euskaldun UTS genduen. Ta gaur zerao erdaldunduta dakusgu.

OTXANDIO: Ez nuke esango gure izkuntza erabat ondatu zaigunik, baño abiada bizian estutzen doakigula, ontan ez dago ezbarrik.

DURANGO: Ango euskeraren azken-zotiñak entzungo bazenitu, negar letorkizuke.

ZORNOZA: Burgos aldeko erria ematen du...

MUNGIA: Gure euskera zaar au larri-larri ta arnas estuka bizi dan erria.

«...Aramaioko zorigaitza izan dutenak edo urte gutxiren barruan izateko bidean daudenak, ainbat erri geiago aipa dezaizkizuket. Or dijakizu izen-zerrenda: Elorrio..., Ermua..., Lemona..., Galdakano..., Sondika..., Derio..., Zamudio..., Sopelana..., Urduliz..., Gernika..., Mundaka.

«...Ta Gipuzkoan? Gipuzkoa ere ez dut uste euskera Aramaion eta Bizkaiian baño osasuntsuago bizi danik».

Bizkaiko adixkide orrek diona egia dan edo... ez,

guk ez dakigu baño bere arrazoiak izango dituala derizkiogu, esaten duana aitortzeko.

Ona «DIARIO DE NAVARRA»k diona:

«...Euskerarenganako zaletasuna zabaltzen ari da gazteetan eta ere agintarrietan, baño erdi euskaldun dauden erri txikitetan zerao galtzen dijoa «Naparroan».

«...Zoaz Donostiko Institutora eta Moja eta Prailleen ikastetxetara: Zer da ura...? Ango MAREA BELTZA... guziak erdera utsean itzigiten!! Eta oietako asko ta asko euskaldunen seme-alabak dituzu!

—oOo—

ZELETA JAUNA: Problema izugarria, euskerarentzat garrantzirik aundieneko dan problema bat begiurrera ekarri diguzu: EUSKERA ERRIAREN EZPANETAN... ARAMAIOko bizi-lagunen EZPANETAN... GU DENON EZPANETAN!!!

Nere iduriko, gaur euskerak daukan beste problema eta kezka guzien GAIN-GAINETIK dagoana: IRAUPENAREN PROBLEMA dalako!

Merezi du beraz, astiro, aztertzea.

—oOo—

NERE OARRA

Ustez onartuko dezun itzaropenarekin eta ere adixkidetasunik aundienarekin, ona nik egin nai dizuan oarra.

Euskerak daukan gaitza zuk ongi azaldu diguzu: Garbi ikusten degu Aramaion egin duan atzerakada tamalgarria.

Ori ongi da, baño ezin dezakezu ortan gelditu. Konparazio batekin aisa ulertuko dezu zergatik.

Gaxo bateri sendagilleak pulstu txarra eta sukar aundia billatzen dizka; baita ere birrikak odol-artuak nabaitzen ditu.

Zer egiten du sendagilleak? Leen-leenik gaitza nundik eta nola sortu dan ikasten alegindu. Eta gero, eritasunari dagokizkion sendagaiak ezarri.

Berdin-berdiña da zuk begi aurrean ezarri diguzun euskeraren gaitza. Eta orregatik, bi galdera egingo dizkituz:

Bata: Zergatik galdu da Aramaion eta Aramaion bezela Euskalerriko beste erri askotan euskera...?

Bigarren: Zer egin aurreranz ori gerta ez dedin...? Ara or, Zeleta jauna, ongi aztertzea merezi duten eta jakitera beartuak gauden bi galdera.

Zu, oker ez banago, Euskalzaundiko zaitugu, beraz, beste iñork ez daukan itzala dezu galdera bieiri erantzuteko.

D. HERNADORENA

BERTSOLARI TXAPELKETAK

EUSKALZAINDIAREN ERABAKIA

du: batzutan geiegi... Donostian ikusi izandu dan bezela.

Lau urte luzeko ixiltasun baten ondotik, Euskalzaundiak aurten bertsolari txapelketa bat eratzea erabaki du. Eta ondo deritzaigun erabaki orreri buruz zertxo bat esan nahi degu.

Donostian Lasarteri egin berri dan omenaldian, bertsolari denak oso ondo aritu ziran, eta zonbeiten iduriz ori gertatu zan, bertsolariak neurketa baten larritasunik gabe, lasa-lasa aritu ziralako.

—oOo—

Bear bada, ez dugu ezetz esaten. Batez ere txapelketa edo neurketa batekin bertsolariak asko larritzen dirala, ez dago zalantzarik.

Baño alaz ta guzti, guk okasio ontaz baliatu nai degu, askotan esan deguna berrizteko, au da, beste jakintza eta kirol denetan, izan dedilla olerki... anzerki... korrikalari eta abar, beste gai denetan neurketak bearrekoak diran eran, berdin-berdin bertsolarietan ere neurketak bearrekoak dirala bertsolari giroa errian sortu... indartu eta gordetzeko.

Egun oietan Basarri kexu zan, bertsolari gazterik ikusten ez dalako, eta arrazoi osuarekin esaten du: «...Gazteen artean neurketak antolatzea komeni duk...».

—oOo—

Bertsolari batzuk ez dira iritzi ortako, batez ere goi mallan arkitzen diranak. Ikusi degulako esaten degu. Arrazoi batengatik edo besteagatik, ez dira neurketa zale.

Baño ezin ukatu litekena da, beste edozein saioketak sortzen ez duan kezka eta giroa sortzen duala entzuleetan neurketa batek.

Irabazle mor izango dan zalantza orrek, zaletasuna asko piztutzen

Ortaz gañera bada, bertsolariak ulertu bear duten beste arrazoi bat ere: Atzetik datozenak, goi mallara irixteko eskubidea daukela eta ortarako, ez dagoala txapelketa beste biderik.

—oOo—

Bestalde, bertsolarien larritasuna apaltzeko, gauz bat esango degu: Txapeldun izan edo ez, Erriak ondo ezagutzen dituala goi-malleko bertsolariak eta egun batez malla bat jetxeagatik ez dutela orregatik Erriaren ixtimazioa galtzen.

Nork uka lezake, esate baterako, naiz txapela galdu, Basarri, betiko denboretan ezagutu dan goigoiko bertsolaririk bikañetako bat bezela jotzen duala Erriak...?

Bertsolari onekin guk pena bat daukagu: bota lezazken bertsorik unkiarrienak... kolkuan gordeta daukala.

Nork uka lezake ere, naiz txapeldun izatea iritzi ez, Erriak, Euskalerrian ezagutu dan txapeldunik aundienetako bat bezela daukala aibador...?

Ez al dio, bein baño geiagotan maitasunarekin batera, nagusitasun ori ezagutu...?

—oOo—

Danok dakigu, egunak eta aldarreak ez dirala berdiñak bertsolarientzat eta egun bateko neurketa utsa, ez dala naikua bertsolari bat epaitzeko.

Orregatik, naiz egun batez mallaz jexi, Erriak ez dio ez nagusitasun ukatuko, ez ta ere ixtimazirik kenduko.

Adibidez, egun oietan ikusi degu exemplu egoki bat: Lasarte, ez da bainere, gure ustez, txapeldun izan, baño Erriak ongixko erakutsi



dio bere ongi-naia, Donostian egin zaiion arrera ederrarekin.

Beste exemplu bat: Astoria anzokian, txapelketetan Mattinen aurretik gelditutako bertsolariak baziran, baño eldu den urtean egingo dan omenaldirako Erriak Mattin autatu zuan, goi mallan «zenbatgarren zan»... jaramonik egin gabe.

Onekin esan nahidegu, bertsolariak ez diotela muzin egin bear sortu litezken neurketari, adibidez, orain Euskalzaundiak eratu nai duanari.

Baño, nola antolatu Erriak eta bertsolariak onar lezateken txapelketa bat...?

¡Ori besterik da...!

H.

ERRIZ - ERRI.



BAZTAN

FERIAK

Apirileko feriak denbora batez ain famatuak orai deus ez dire. Feri hauek Apirilaren 16 ean ospatu ziren eta egia erran guk guren denbora guzien ikusi ditugun feri murrizenak izan ditugu. Yende guti eta aziendik baterez. Merkatua aspaldi huntan etxia dago «maingerie» dela medio eta beien gaitz kutsakor hori arras suntsitu artio merkatuak debekatu dituzte. Nekazarien artean bada arrankure eta arrazoñarekin ilabeteak gaten baitira deus probetxurik gabe eta bizkitartean maingerie beti nausi. Nola ez dute ba beingoan garbitzen? Noiz arte hola?

Ferien urrine bederen nabari izaten da eta bertze egun arrontetan baino yende geiago bazabilen Elizondoko karriketan, bainan

erran dezakegu oraiko Apirileko feriek lenagoko oroitzapen bat bertzerik ez direla. Bertzalde oraiko bizi moldeak eta aisetasunak lenagoko oiturak aldatu dituzte eta gauz guzietan aldakuntzak nabarmen agertzen zaizkigu.

M. IZETA

URDIAIN

GAZTETXOEN TXOKOA

Amarrendegi-ko Gaztetxoak ez dira lo egon aurten (1970'an). Moztasuna izaten da gure neska mutilen gaineko axala; bildurtasunaren molkots latza. Txikitatik kendu beharra izaten da; gero ez dago kentzerik.

Amarrendegi-ko dantza eta soinua ikusi baizik ez da gustora dabilzala konturatzeko. Norbaitek esango du, horko erausi ta garraxiak ez direla onezkoak. Ego aizea datorrenean eta elur bezpe-

ran belarriak itxi ta kitto. Mundu guzian gertatuko da; guri beintzat hala esaten ziguten txikitan.

Ba da garraxia eta dantzaz kanpo beste zerbait. Elkar hartze hortan ari dira jende egiten. Bere alde ibili nahi duenak ba du bere buruakin nahiko lan. Bakardadea bezain gauza motzik ez da munduan.

1) Aurtengo udan hitzaldi jakingarriak izan dituzte. Eskoletan ematen ez zaizkien gai sakonak. Gauza jakingarriak ikasi dituzte eta adiskide berriak egin. Aberastasun haundia.

2) Euskal dantzak ikasi dituzte. Urdinen orai arte ezagutu ez zena hamasei emezortzi neska mutil, bildurra botarik, beren jantzi ederrekin dantzan ikusi ditugu.

Nati Ochoa


M. Lourdes Galarza
M. Coro Goicoechea
Aitziber Ostiza
Benita Goicoechea
M. Carmen Goicoechea
M. Paz Garmendia
M. Sol Echeverria
Juana M. Galarza
Fco. Juan Aldaz
Jose Gonzalez
Mariano Galarza
Jose Gasanz
Jose A. Garabieta
Miguel Ign. Galarza
Jose Luis Zufiaurre
Antonino Goicoechea
Pedro M. Lizarraga

3) Beste berri bat: laister txistulariak ere izango ditugu. Zazpi gaztetxo, borondate haundiarekin, solfa ikasten dabiliz. Astean lau egunez dituzte ikasketak. Nor diren?

Josefina Sanroman
Micaela Aldaz
Marisa Acha
Inmaculada Goicoechea
Miguel Angel Zubiria
Carlos Aldaz
Angel Mari Galarza.


Lotsa bota eta jende aurrean agertzen hastea da Gaztedi euskaldun baten lehenbiziko urratsa eta pausua. Hori egin duenak makurrena egin du.

Eta gure gaztetxoak, ego aizerik ez datorrenean, nortasun haundiko jendeak dira. Harriturik utzi zituzten Iruñetik hitzaldiak ematera etorriak. Ez ba dira makurtzen, beste giro bat sortuko dute Urdiain-en. Zorionak.



Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

U B.



AIZKOLARIAK

Apirilaren 25 ean Leitzako herrian Espainiako aizkolarien Xapelgoa yokatu dute. Nor-gehiagoka hontan lau aizkolaria ari izanak dira: ASTIBIA Leitzarra. MINDEGIA Ezkurratarra. ARRIA Errezildarra. BEREKOETXEA Gorritiarrak.

Ikaragarriko yendeketa bildu zen Leitzan, nafartar eta gipuzkoar euskaldun yendeak billera ederra izan zuten.

Aizkolaria bakotxaren eginkizuna: Lau 54 ontzako. Lau 60 ontzako. Bi 72 ontzako. Bi 80 ontzako. Denetara 12 onbor.

Lenbiziko onborra 54 ontzako Astibia denen aurrean, gero bigarreanean eta irugarrenean Mindegia aintzinean bainan laugarrena ebaki orduko leitzarra berriz aintzinaldia harturik gisa hortan 12 onborrak erdibitu arte bigarrenari 3 minutu ta 18 segundoen bentaja atera ziolarik. Astibia ohore guzietan Txapeldun.

Mindegia Ezkurratarrak denak arritu ditu, iñork etzuen uste bere ahalmenak orrenbertzetarañokoak zirenik. Lendabiziko onborrean atzean gelditu zen bainan bigarrena ta irugarrena denak baño lasterrago moztu zituen naiz ta gero Astibia aintzinaldia hartu zion. Beti ere bigarren gelditu zen eta hori gauz aundia da.

Arria ta Berekoetxea gibel asko gelditu ziren eta ea yokoaren erdian Astibia Arriari 3-50 minutoen bentaja atera zion eta 4-46 Berekoetxeari. Arria ta Berekoetxea gibelean gelditu ziren bainan bi morrosko hauen arteko gudua ikusgarria izandu zen batez ere azkenengo bi onborretan.

Arria ez zagon sasoñean, yoko hontan bertzetan baño gutxiago egin du, urrengoa gehiago egin dezake hala espero dugu.

Berekoetxea denetan zaharrena ahal zuena egin zuen eta denborakin prestatu izan balitz aunitzez gehiago egin zezaken.

Astibia Txapeldunak ohorezko KOPA eta TXAPELA hartu zituen eta ikusliar guziek txalo ta esku-zarta ugari Txapeldunaren ohoretan.

Leitzako herriak egun eder bat igaro zuen eta Astibiaren garaipenak herritar guziak pozez bete ditu.

Zorionak Astibia Txapeldunari, Leitzako herriari eta Xapelgoaren antolatzaile ta laguntzaile guzietan.

HEMEN AIZKOLARIEN DENBORAK


TXAPELDUNA, ASTIBIA, 12 onborrak 48-06 minututan. 1924 aizkora kolpe.

Bigarren, Mindegia, 12 onborrak 51-24 minututan. 2.033 aizkora kolpe. Irugarren, Arria, 12 onborrak 54-19 minututan. 2.014 aizkora kolpe. Laugarren, Berekoetxea, 12 onborrak 54-47 minututan. 2.352 aizkora kolpe.

M. I.

GORRIZ (Longida)

Gudari erne baten antzekoa iduritzen zaigu errixka au. Iraty ibaia zaintzen dago. Bizkar baten gainean erri onek eliza oso ederra du; katedrala dirudi, dan dana arri landuz egina dago. Dorrea, atea ta bataio ponteak erromanikoak ditu. Oroz-Beteluko bidea artzean, Artzibarren eta Aoitzeke bide zaindari bezela jarria dagola ematen du. Bertara urbiltzean, aurrerago joaterakoan, iduritzen zaigu Gorritzeko erriari baimena eskatu bear zaiola.



Udarako egun bero batean OSA ikustetik gentozen. Iraty ibaia oinez igaro genuen. Atsaldeko lauak ziran. Erria utsik billatu genuen, etxeak erdi erorian, atek irikita zeuden. Antxe zegoen jauregi zarrak, bere armari ta guzti.

Eliza inguruak giza ezurrek zabaldua botiak zeuden. Elizari erantzia, illobi eder bat dago, elizatxo baten antzekoa, ate gainean itz abek ditu: «Panteon de Joaquin Aldaz y herederos». Illobiak irikita ikusi genituen. Elizaren atea ere puskatuta zegoen eta barrena arront urratuta zeukan; lurra altxatua, Bataio pontearen ontzia lurrean, abetxoa bakarrik zutik; aldare nagusia xeatuta, gainean zitun arri landu batzuek ebakiak eta eramanak. Iduri zun moruak sartu ondorean etorri giñala. Ura ala ikusita otz ikara ematen zun. Eliza artatik oso asarre atera giñan esanez etzagola eskubiderik orrelako lan txarrak gaurko egunean egiteko. Ibai ondoan lanian ari ziran langille batzueri galdetu genien zer gertatu zan Gorritzen? Bai erantzuna eman ere eta gu arrituta gelditu.

Orain dala bost urte bakarrik egin omen zituzten txarkeri aiek. Erri onen nagusiak, euskaldun napparrak oso jatorrak omen dira eta aien etsaiak egin ote zituzten susmurra zabaldu zala jakin genuen.

Noraino iraun dezaken barrengo ustelkeriak eta gorroto txarrak.

Urte batzuek dirala oraindik, Unai mazter bat bizi zan erri ontan eta urtero Izagako San Migelen elizatzora erromesa egitera, Longidako erriekin batean joaten zan. Berak erriko Gurutzea artu eta etxeko andreakin batean oñez, Aoitzeke kaletan barrena joaten omen ziran.


Orain Eliza osoa berritzera dijoazte ta erriari lan giro berria ematera. Piñudi landare ugari sartzen ari dira ta mendi bideak egiten. Zaindariantzat etxe bezela gaztelu zarra berritzera dijoatzela entzun degu. Eliza ere ondo jartzean, altxatuta dauzkaten gauza eder batzuek jarriko dituzte bertan berri; amabi garren gizaldiko eserita dagon Amabirgin eder bat, zurazko gotiko kopoi bikain bat ere bai. Kanpaiak ez dira osterata atzera etorriko, ostu egin zituzten zortzarrez.

Erri au osterata berritzen dute-nean, zeinen ederra geldituko dan bazter au. Iraty ibaia poztuko da berriz.

PILOTARIAK

Gauzak ongi ta zuzen gertatzen badira, irakurleek «Principe de Viana» hau eskuratu orduko Espainiako esku-huska ta buruz-buruka Xapelgoa akitua izanen da eta irabaztatea ohorez txapelarekin koarotua.

Xapelgoaren zenbait partidaren berri emanen ditut: Final-laurdetan aritu ziren, Lajos eta Andueza Donostian eta Bergara eta Tapia Gazteizen. Lenbiziko partida horrek ez du sobera kondatzekorik, Lajosek airez-aire irabazi bazi zion 22-9. Bigarrenak bai, partida



atakatua izandu zen bi pilotariak beren ahalmen guziak agertu zituztela. Gudukaldi hunek gorabera aunitz izan zituen eta azkenean Bergarak irabazi 22-20.

Gero Apirilaren 25 ean Berga-

rako frontoian final-erdiko partida Lajos eta Bergararen artean. Partida honek yende asko mugiarazi zuen eta Bergarako plaza leporaño bete zen. Nafartar aunitz ikusliarren artean eta trabesak Lajos alde 200-80 ri. Lajos Ultzamarra paxa gorriarekin eta Bergara Etxalartarra urdinarekin eta goizeko ameka terdietan partidari asiera eman zitzaion. Lenbiziko saka Bergarari suertatu eta lenbizikoan «pasa» eta bigarreanean saketik tauto 1-0. Lajosek berehala berdindu eta trabesak bere alde 200-60 ri. Gero Etxalartarrak iru puntu bereganatuko ditu 4-1 bainan Ultzamarra hortan berdindu 4-4. Trabesak 200-50 ri. Bi puntu gehiago urdinarentzat eta gorriak berri berdindu 6-6. Trabesak 400-80 ri. Lajos bizkor dago eta bere ahalmen aundia erakutsirik aintzinat doa eta berehala borts tantoen abantaila hartzen du 13-8. Etxalartarra ez dago lo eta honek ere bere indarra eta kementa agertzen du eta amabortzgarren tantoen berdindu. Ados yaunak ados! Eta trabesak oraindik Lajos alde 200-100 ri. Gero bi tanto Etxalartarrantzat 17-15. Orain dirua berdinean 100 duro. Amazazpigarrenean berriz ados. Orain gorriak bi bere alde eta gero urdinak bat 18-19. Trabesak beti Lajos alde. Azkenean Lajosek falta dituen iru tantoak bereganatzen ditu eta partida irabazi 22-18. Partida izugarria eta atakatua. Lajosek irabazi zuen bainan Bergarak ere berdindu irabazi zezaken, biek berdintu eta negurri berean agertu zitzaizkigun. Urrerango emanen ditut Azken-Partidako gora-berak.

Anzanarri

Eliza eta euskera

Nafarroako Consejo Presbiterial delakoak duela denbora puska bat artutako zenbait erabaki irakurri ondoren, aspaldidanik nedukan ideiarenean azaltzerat natorkizue. Elizak euskeraren aintzinean, bestetan sartu gabe, Nafarroan izan duen eta deraman jokaeraren aztertzea, alegia.

Bihoa alde aurretik, ez naizela apez xoillari buruz ari. Apez, praille eta abar jatorrik, eta euskerari atxikiak izanik ere, hemen aztertzerat goazena ez bada bakarkako joera, hierarkiak deramana baizik. Gogoan izanik gainerat, egjak bide dagiela; eta elizak egia, nahiz eta mingarria izan, maite duelakoan.

Besteak beste, badira joan diren mendeetako Nafarroako apezpikuek izkribatu zenbait agiri, zeinetan gure erresumaren zatirik naundienean euskeraz mintzatzen zela erakusten baitaokute. Herriak latineraz eta beste erderarik ez zekieia ikusirik, inprimatu ziren katixima eta eiz-ibururu guti batzuk euskeraz. Hala ere eliza, bere prediku eta liburutan —oro ar— erderarat itzurita zoan. Lehenik latinerat; gero espainolerat. Nafarroako kortean bezala.

Urteak joan, urteak etorri (XIX-garren mendeko gerlak, eta XX-garren mendekoa), Nafarroako herri aunitzek, euskera utzi eta, erderarat jo zuten. Horren argitzeko, naski, ameka kondizionamendu aipatu eta ikasi beharko genituzke. Eta hori guztia, itz bitan xuritzea ez daitekean gauza da. Funtsean, badakigu zer gertatu den; bego hori oinarritzat.

Elizaren joera, haren aintzinean, egoera jeneralaren arauera kokatzen da. Ez da arritzekoa. Baina, aspaldiko kontuak direla erran ez dezaten ikus dezagun egungo egunean ere, zer-nolako abiadura deraman.

Nafarroako eskualdeak zatitzaerakoan, bat euskalduntzat artzen duela erraten dauku. («Reservas de indios» deitzen direnak?) Zer erran nahi du horrek? Eskualde hori zeharo euskalherriat artzen da? Hots, euskera besterik ez dela erabiliiko? (Ez da egia. Guztioak baidakigu aski dela iru erdaldun irixka batetan izatea, «gizonen eskubideak direla eta» erderaz asten ahal izateko). Ala, beste eskualdeak ez direla euskalherri erran nahi du? Alegia, beste eskualdeetan ezin dela euskal-elizkizunik antola?

Nafarroa bat da; eta bere izkuntza arrot nagusia, euskera. Eta hau dela medio, noizpart erran izan dudana, berriz ere aipatzerat noakizue. Gauza bat dela, berez natural den zerbait, dagoen bezala onartzea; eta besterik, mendeak zehar eta kondizionamendu menperatzaile batzuk direla medio lortutakoak, «naturalak» uzala artea.

Gainerat, elizak arras bestelako jokaerarik derama. Uste baidu, bere pentsaera-moldea «egia» dela, eta horrenegatik, hura munduko lau kantoinetarat barreiatu nahi izan du; bai eta orai ere. Deus galdegin gabe. Nahiz berez —eta hemen bai naturalak zirela— beste pentsaera-moldeak izan. Bestalde, «iglesia indigena» delakoaren alde jo eta kea dabilla; leku guztitan, salbu Euskalherrian. Azken konsekuentzaraino behintzat ez.

Eta orai, menderen mendetan euskera hiltzen lagunduz gero, Saraitzu, Erroñkari, Esteribar, Erroibar, Ulzama, Anue, Txulapain, Atez, Burunda, Arakil eta beste, ez direla gehiago euskalherri erraten dautzute. Eta zer egiten du elizak —diogu guk— lehen emanikako urratsen zuzentzeko? Zeren, ez hain aspaldi, leku horietan denak euskaldunak izanik, elizan iya dena erderaz ematen zen. Eta egun ere, Aiezkoako Arian, gutiz gehienak euskeraz ariki, elizan erderaz. Ergoieneko Dorraun, denak euskaldun arrotak, eta elizan erderaz; gainerat altaboz batzuk herrian barrena paratuz; jendea erdaldunduaz —eta erotuaz— «obeki kristau» dadin, nonbait. Gauza bertsua beste ameka lekutan; baina, zertarako segi?

Martxa horretan segituz gero, denbora guti barne ez dira euskaldun izanen, ez eta Araiz, Imotz, Baztan, Basaburua, Larraun, Sakana, Bertiz-Arana, Bortziri eta horrelakoak ere. Orduan ez litzake nehoendako buruasterik izanen, naski. Eta tamalez, hori da azken finean, guk ez ezik, ia guztiek billatzen dutena.

Beste landetarat jotzen badugu, «provincias eclesiásticas», «zonas» eta horrelakoen antolatzerakoan, artxapezpikuegiak, eta praille-serora ordenek zer egiten dute? Zorigaitzez, frango garbi dukusagu, gure herriaren berezitasunez deus guti axolatu nahi dutela.

Egungo eguneko kondizionetan, dena esi eta oztopo, ikastolak ugaritzen, euskeraz ikasteko zaletasuna edatzen, eta bestelakoek, garbi asko adierazten dute herri honen benetako nahia. Jakin nahi duenak adi beza.

Urliak «ikastolaren babesa» aipa lezake, jokabide jator baten lekukotasun gisa. Ez dago gaizki. Baina guretako, ez da aski «ikastolaren gerizapetzea». Baidakigu, egun, «parbularioak» gure esku dituzkegula. Bai eta euskal-pedagogiaren etorkizuna ez da izala bospasei urte arteinoko ezieran ere. Benetako atera-biderik hemen ere, ez lirake gaizki etorriko. Baina guztioak, aho bete ezur gelditen gara, bateonbategi bere «zaletasuna» agertu nahiz, «parbularioak» babesten dituela erraten baldin badauku. Aunitzek gehiago egin dezakealarik.

Horretaz landa —berriz ere erranen dut— apez eta praille batzueri esker, zerbait erdiesten da. Baina gu, ihardespen orokorrataz ari gara. Eta herriko, demokratiko, aurrerakoi izan nahi lukean nehoendako, ez da galdegin eta eskatu beharrik. Sobera eskatu gabe, egin egiten baidu.

Elizarendako nehun dirurik ematen duen herririk baldin bada, bat Euskalherria da. Dirurik, apezik, prailerik, serorarik, mixionestarik eta nik dakita zer gehiago! Hala ere egarri justu eta legezkoari uko egiten zaio. Baina garbi geldi bedi euskaldunak oharitzen garela; batuk behinik-behin.

Bukatzerakoan, kanta ezagun batek diona bururat dakorkit: «Amasei salbe eta amalau kredo erderaz entzunagatik, bazinakien hori ez zela sekula guretzat egin; urrezko dukat eta diruak ez dira engaiñu txarra, bazter batera apartatzeko lehengo sinismen zaharra».

Anko Sendoa

«GORA IASO DITU UMILLAK»

Arri-morru tartean lur pixka bat: lur zati ttipi ortan belar multxuska, iru lorekin, udaberriari kantuz. Nork ikusi ta nork entzun? Egileak seurik bai. Belar ta loreentzat, ez ahal da aski au?

Nik ikusi ditut ordea: zuk ere, agian bai. Ta eken esker oneko irrintzia, arri ta zur entzuten dut ixilean.

—oOo—

Belai zabalean sagardia. Negu-sagarren, ezti zuri gorri beltzen, udare-sagarren txertoak: basaki bat edo bertze, mandaka batekin.

Osto ta lorez iori iori udaberriz, lenbizian: loretan bakanduz, gero: zituan, bakanago.



LEIOTIK

Leiotik ikusten ditut egunero etxe-txori batzuk, berek berentzat an-emen autatutako ian-lekueetatik batean.

Azkarrenak edo, nik ez dakit nondik ta egunik uts egin gabe, mokoan dakar ogi kozkor bat.

Zama pisu au lurrean uzten duan bezein laster, bere antzeko zazpi zortzi or datorz egaztintxoaren inguru; ta iana irabazi nai balukete bezala, borrokazko lana asten dute elkarren artean. Arritzekoa!

Ogi puskari piko ta elkar piko dabiltz, denen artean poliki arindutako zatia aietatik batek berekin artu ta iges egin arte.

Ziken ontaz oharitu diranean, zati aren atzetik doaz bertzeak ere, elkarren arteko katazkekin kozkoratik berezi dituzten porroska franko lurrean barraietuak utziz. Utzi guziak galduak direla ez dakite nonbait...

Iru lau txori berri datortz orduan papurretara, bakoitza zati iorienaz iabildu naiean: ezaguera dunak bezala, ots!

Iabildu nai orrek borroka dakar: borrokatik filusenak iges egitea dator: ies egiteak gañerakoak gibeletik iarraitzea sortzen du: iarraitze unek mami ttipienak ta goxoan ian-tokian uztea berekin du.

«Papo gorri» potxolo bat agertzen da azkenik; ixilean; baketsu; ezti ezti; ta bakarka bakarka, astiro, biltzen ditu bertzeek prestatutako iateko goxoak; ase arte: orrela potxolotu da; asez asez.

Etxe-txori azkarrak okela dakarren bezein abudo ta lagunekin pikoka asi orduko, uso txuri-oriska bat sartzen da eken artean zenbait aldiz, ta denak uxatuz, artu ta berekin darama iatekoa, nonbait bake bakean barnera biltzeko, ez bazaio seurik ari ere uste ez duen etsaien bat an agertzen; iana zaintzeko negurri guziek arrixkua dakarte bada gosetien artean.

Au gertatzen danean ere, «papo gorri» potxoloa or dator ixilean; baketsu; ezti ezti; beti bezala: ta txori-uso arteko zalapartari esker ogilik laxatu ta berezi diran zatixkak pozik kolkoratzen ditu, deustaz bere burua estutu gabe, aldameneko katuz ez bada.

Uso ta txorien ibilera ok ikustean, munduko bertze gertaera beltz batzuk gogorat eldu zaizkit, gure arteko borroketan nor ote dan denen artean egiz zentzu dun ezin asma ahal izateraño.

Iasan

Lore pilla guzitsu ura alferrik?

—oOo—

Udaberria loreek apaintzea, ez da gutti. Erleeri ere lana ta iangaia ematea, bada zerbait. Ez idurian ere, lore bakoitxak bere ona eman du. Zenbait loreek zekarketen sagarrak ezin ian guk. Baina eken irin errautsetik atera den ezta, nork daki!...

—oOo—

Bere onak emanik, lurrean, beharbada logian ta gure zangopetan ongatu den loretxoa iuzgatze, ez gera gauza gu!

Amatxi xaharra ta illobatxi arra: adin geiegikoa bat; iakin-eza bertzea. Biok maiatzean, eguerdi inguru, itzaleguzkitan.

Itxurazko zerbait egin nairik ere, batek eta bertzeak ezin. Gortzeko begiekin ikus genezaken onik ez digute berek egiña bezala erakusten ahal gauz-ez diran biok.

Nork erran «gauzeza» amonari? «Txotxolo ta ez-deus» nork aurtxoari?

Illobatxo orren biotz gurian, bizitarako behar izanen dituen azi onak ereinez ta ongarrirituz, emaitz eta fruitu oberena ez ote da bada bizitzan ematen ari (bera nor izanez) itxuraz ezindutako amatxi au?

—oOo—

Maiatz ostarra; ostoaren musker ezea; gorenez egun bat irauan alako lorea; txorien maite-kantua; kukuaren oi basaa; ...iraupe guttiokak naski: erakuspen audikoak egiz, Egillearen maitasunezko lanaz oharitu nai dugunentzat.

Anbulu ta bas-arrosazko eskuta-



ra batek, deus guti balio du. Ala ere, bi nexka-koxkorrek an-emen bilduta, Zeruko Amari otoitzez ta biotzez eskeintzen badiote, Zeruren atsegin ta lurrekoendako urrikaltasun bihurtzen da.

—oOo—

Pixka emen, pixka an ta pixka or, edertu digu lainkoak on aunitzekin gure bizilekua.

Pixka oken artean, pixkak iarri gaitu gu ere. Pixka utsak gerala umilki oharitzen bagera, buru-biotzeko amets arroak itzaliz, ona dezakegu munduan.

Zein ongi guretzat orrela, Zeruko gure Amak diona:

«Iaunak bere besoan indarra [erabili] du, buru-arroak umildu ditu. Bota ditu beren alkitik audikiak, eta gora iaso ditu umillak». (Orixetik)

IBARRONDO

Euskal izenak

6.-EDURNE



Txoro bakoitzak bere pikua, eta nik goizetan egunorokoa hartzean, jaioberrien errenkadari begiratu bat beti ematen diot. Ba da, *ezpada-re*, lehen esaten zen bezala. Beste batzuk hildakoen izenak iresten dituzte. Bakoitzak bere gauzak. Egia esan, ez da gauza haundirik arkitzen gure artean; ezezkoa ugariago da egunkaritan, delakoa baino. Halare, behin edo beste, huts askoren ordain, arkitzen dut zerbait.

Martxoaren ondar eguna testigu, *Eduerne* zekarren. Bi eta hiru aldiz irakurri nuen; ez ninduten begiak tronpatzen. Herri-tan asko erabiltzen da *Eduerne* izena; baina ez da berdin idatzirik ikustea. Anketakoak estutzen duten lekuan hartzen du bakoitzak mina, eta gure Iruña bedeinkatu hori dugu euskal izenen zapeta estua. Horrexegatik hartu ginuen gogoan: *Eduerne Paularena Gorraiz* («Diario de Navarra», 31.3.71).

LEGEA

Denok dakigun bezala, erderazko Maria Nieves, edo Nieves hutsa izango litzake gure *Eduerne* jatorra. Beste alde, lege gizonen ahoz entzuten aspertuak geranez, itzulpena duten izen euskaldunak erderaz idatzi behar omen dira. Besteren ma-

kilari dagon asto beltzaren zorrigaitza. Eta *Eduerne* bezala, Nekane (Dolores), Aintzane (Gloria), Garbiñe (Inmaculada) eta beste.

Nola nahi dela, gure begiz ikusi duguna gezurra dela esaten trebe dira. Behin baino gehiagotan gertatu zaigu periodikora berek bialdutakoa, Rejistroan gezurtzat ematea. Zuzentasunaren izenean egiten direnak!

GAURKO GIROA

Halare, zerbait aldatzen dioja gure artean; eta egunetik egunera aldatu ere; korrikan. Indarkeri hutsez bildutako urak lehertzen ari ote diren! Han-hemenka euskal izenak. Nafarroan bazartuta, Bizkaian nagusituta da, eta hiri-buruan ezeztatuak, herritan sartuko du sudurra. Eta behin hortara ezker, lehenago edo geroago, etorriko da. Idatzia, idatzirik gelditzen da.

Eta hau da gurea: aurrez ukatzen zaigun eskubidea, ahal den bidez lortzea. *Eduerne* herrikoia zen, denen belarritan zegon ta; hortatik bestera bide motza da. Izan ere, paperretan sartzen hasia zaigu.

Ardatza ekatzu eta egingo dut piru.

Sagi